

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2017/18

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25934 - Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau Gizarte Langintzaren Oinarriak, Metodologiak, Teoriak eta Teknikak deritzon A Moduloaren parte da. Gizarte proiektuen diseinu eta ebaluazioan oinarritzen da, gizarte esku-hartzearen planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesu orokorraren ulermenatik. Horretarako, planifikazioaren maila ezberdinak landuko dira: plana, programa eta proiektua, zehazki azken honetan zentratuz planifikazioaren unitate operatiboena den heinean. Irakasgaiak ikuspegi teoriko-praktikoa hartzen du, Gizarte Langintzaren tresna den gizarte proiektuak barneratu behar dituen eduki ezberdinak ezagutzeko eta garatzeko.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Irakasgaiak modulo honako konpetentziari erantzuten dio: Esku-hartze planen, programen eta proiektuen diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa. Era berean, honako modulo irakaskuntza emaitzarekin lotuta dago: Gizarte Langintzaren metodologiak eta tekniken ezagutzea eta aplikatzea dituzten banakako, familia, talde, komunitate eta erakundeekin, esku-hartze proiektuak diseinatuz eta ebaluatuz.

Horrekin batera, irakasgaiaren konpetentzia zehatzak hurrengoak dira:

- Gizarte proiektuen printzipio, irizpide eta faseak ezagutzea.
- Gizarte proiektu mota ezberdinak antzematea.
- Gizarte proiektuen formulazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesua eta eginkizun honetan gizarte langileen funtzioa ezagutzea.
- Gizarte esku-hartze proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

ANECAn baieztatutako titulazioaren memorian zehazten denari jarraituz, irakasgaiak honako eduki teoriko-praktikoak lantzen ditu:

1. Planifikazioa
  - Planifikazioaren aspektu orokorrak: printzipioak, irizpideak, motak eta prozesura
  - Planifikazioa gizarte langintzan
  - Planifikazio mailak: plana, programa eta proiektua
2. Gizarte proiektuen diseinua
  - Deskribapen laburra
  - Fundamentazioa
  - Helburuak
  - Hartzaileak
  - Ekintzak eta metodologia
  - Kokapena.
  - Egutegia
  - Balibide pertsonalak, materialak eta teknikoak
  - Aurrekontua
  - Ebaluazioa
  - Eranskinak (diseinaturiko edota aplikatutako diagnosi eta ebaluazio tresnak)
3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua
  - Ebaluazioaren definizioa, helburuak eta ezaugarriak
  - Ebaluazioaren edukiak
  - Ebaluazio motak
  - Ebaluazioaren arduradunak
  - Ebaluaziorako teknikak
4. Azken txostenaren idazketa

Irakasgaiak zeharka lantzen ditu genero ikuspegia, giza ikusbide ikuspegia, gizarte eta ingurugiro sostengarritasuna eta parte-hartzea, gizarte proiektuen formulazioaren berezko edukiak diren heinean.

**METODOLOGIA**

Irakasgaiak metodologia aktiboa hartzen du proiektuen bidezko irakaskuntzan oinarrituta, gizarte proiektu baten garapenean

hain zuzen ere. Horrela, ikaslegoaren lan autonomia bultzatzen da eta irakasgaiaren konpetentziak.

Era berean, posiblea den heinean irakaskuntza-zerbitzua sustatuko da, hau da, erakunde edo gizarte talde baten eskaera zehatz bati erantzuten dion gizarte proiektuaren diseinua.

Irakaskuntza ekintzak honakoak dira:

- Azalpen teorikoak.
- Derrigorrezko irakurketak.
- Gizarte proiektu eredu ezberdinen taldekako eta talde osoko adibideen azterketa.
- Gizarte proiektuak burutzeko diru-laguntza publikoak lortzeko formulazio ereduaren taldekako eta talde osoko adibideen azterketa.
- Planifikazio eta kudeaketa tresna ezberdinen aplikazioa: baliabideen mapa, arazoaren zuhaitza, Gantt-en diagrama, aurrekontu taulak...
- Gizarte proiektuaren atal bakoitzeko ariketa praktikoak.

Irakaskuntza ekintza horien garapen egoki baterako, beharrezkoa izango da irakaslegoak alde aurretik irakasgaiaren oinarriko bibliografian agertzen den materialaren kasuan kasuko derrigorrezko irakurketa egitea.

Gelako praktikei astero ordu bat dagokie. Praktika hauek progresiboki barneratzen joan diren ezagutza teoriko-praktikoak aplikatzeko balioko dute. Zehazki, irakaslegoak taldeka (5 pertsonetakoak) proiektu baten diseinua egingo du atalez-atal, irakaslearen partetik irakaskuntza feed-backa eta ebaluazio jarraia jasoz.

Irakaslegoak tutoretzak izango ditu ere zalantzak argitzeko eta proiektuen aspektu metodologikoak berrikusteko.

Derrigorrezko irakurketa materiala E-Gela espazio birtualean egongo da eskuragarri.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako d. GL: Laborategiko d. GO: Ordenagailuko d.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 80
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10
- Ikaslearen partaidetza, inplikazioa eta ekarpen maila % 10

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### EBALUAZIO SISTEMA JARRAIA

Irakasgaia honek nagusiki duen ebaluazio sistema jarraia da. Ikaslegoak 5 pertsonetako taldeetan diseinatu behar izango duen atalez-ataleko eta zehaztutako epeetan entregatze, zuzenketa eta deboluzioaren bidez egingo da ebaluazioa. Sistema jarraia honek ikaslegoaren talde lana errazteaz gain, gelako praktikan proiektuaren formulazio prozesuaren segimendua eta akonpainamendua ahalbidetzen du, baita taldearen eta irakaslearen partetik feed-back-a ere.

Irakasgaia amaitzean taldeek haien gizarte proiektua paperean entregatuko dute eta adostutako formato eta estilo irizpideak jarraituko dituzte, baita ortografia eta zitzazio (APA) arauak ere. Proiektua entregatzeko azken epea azterketa ofizialaren data izango da.

Talde bakoitzak talde osoak lortzen duen kalifikazioa ez den bestelako kalifikazioa izan dezake honako irizpidearen arabera: eskoletako dinamikan eta talde lanean ikasle bakoitzak izandako partaidetza, inplikazioa eta ekarpenaz, irakaslearen irakasgaiaren zeharrek behaketan oinarrituta. Modu honetan, konpetentzien garapen individuala ere ebaluatu ahal izango da.

Ikasleei eskatuko zaie proiektuaren diseinuan kolaboratu duten elkartei proiektua itzultzea.

## AMAIERAKO EBALUAZIOA

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko eba-luazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederlatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da"(8.3. art.).

Amaierako ebaluazio sisteman parte hartzen duen ikasleagoak irakasgaiaren konpetentzia berdina akreditatu behar izango dituzenez, azken froga gizarte proiektu baten diseinua egitean datza, azterketa data ofizialean entregatuko dena. Froga honek %100 kalifikazioa izango du, eta aurrerago azaldu diren balorazio irizpide berdina aplikatuko zaio.

## DEIALDIARI UKO EGITEA

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari"(12.2 art).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea2 (12.3 art).

## KONTUAN HARTZEKO

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera (11.3. art.).

Idazkian akats gramatikalak suspentso arrazoia dira.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez ohiko deialdian jarraitutako ebaluazio sistema ohiko deialdirako zehaztutako berdina izango da.

Ez ohiko deialdiari uko egiteko nahikoa izango da bertara ez aurkeztearekin.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren ikasmaterialik ez da egongo. Hala ere, ondoren azaltzen den bibliografia ataleko oinarriko bibliografia irakurtzea derrigorrezkoa izango da.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

Oinarrizko bibliografia

#### 1. Planifikazioa

BERNAZZA, Claudia (2006): "La relación entre política, planificación y gobierno", eskuragarri:  
<http://www.claudiabernazza.com.ar>

FERRÁN ZUBILLAGA, Ane (2008): "Técnicas de planificación y gestión", in GUINOT, Cinta: Métodos, técnicas y documentos utilizados en Trabajo Social. Colección temas de Trabajo Social. Bilbao, Deusto Unibertsitatea.

GAIRÍN SALLÁN, Joaquín (1997): "Elementos de planificación", in FERNÁNDEZ ARENAZ, Adalberto eta Joaquín GAIRÍN SALLÁN: Planificación y gestión de instituciones de formación, Bartzelona, Praxis, 155-160.

OBERAXE (2009): Guía para el diseño y elaboración de planes locales de sensibilización. Madril, Ministerio de Trabajo e Inmigración.

#### 2. Gizarte proiektuen diseinua

ANDER-EGG (2000): "Pautas orientaciones para elaborar un diagnóstico comunitario", in Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Ed. Lumen, Buenos Aires. (7. Kapitulua).

CARRION, Iñigo eta losune BERASATEGI (2010): Proiektuak lantzeko gida, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutoa, Eusko Jaularitza, Gasteiz.

CRE (2010): Manual de planificación de proyectos sociales. Madril, Cruz Roja Española.

GARCÍA HERRERO, Gustavo eta RAMÍREZ NAVARRO, José Manuel (2006): Manual práctico para elaborar proyectos sociales. Madril, Siglo XXI.

PÉREZ DE SAN ROMÁN, Nahia eta Oskar FERNÁNDEZ (d/g): Egingo dugu proiektu bat? Hasieratik bukaerara, zer izan behar duzun gogoan, ERDU Argitalpenak, 2. Zbk, Gasteiz.

RAYA DÍEZ, Esther (koord.) (2011): Herramientas para el diseño de proyectos sociales, Errioxako Unibertsitatea.

SABALZA, Michel (2000): "Enfoque del marco lógico", in Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo. Instituto Hegoa (UPV/EHU), eskuragarri: <http://dicc.hegoa.ehu.es>

SOLABARRIA, Enara: "Cómo hacer proyectos". Manuales de gestión. Bilbao, Bolunta.

### 3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua

HANNACH, Andrés (1994): Manual para proyectos. Por qué y cómo utilizar indicadores de género. Santiago de Chile, Servicio Nacional de La mujer y Agencia Canadiense de Desarrollo Internacional.

PÉREZ ARIAS, Oscar (koord.) (2010): Guía de Evaluación de Programas y Proyectos Sociales. Plataforma de ONG de Acción Social, Madril.

MASA, Marce (2008): "Criterios de valor en el diseño de proyectos", in RAYA DIEZ, Esther (coord.): Herramientas para el diseño de proyectos sociales. Logroño, Universidad de La Rioja, 49-58.

SAENZ, Marta eta CAERO, Concha (2008): "Análisis de caso de evaluación de proyectos: La experiencia de la Red de Talleres de Aprendizaje y la Participación de las personas en los proyectos", in RAYA DIEZ, Esther (koord.): Herramientas para el diseño de proyectos sociales. Logroño, Errioxako Unibertsitatea, 155-162.

## **Gehiago sakontzeko bibliografia**

### 1. Planifikazioa

AGUILAR María eta ANDER-EGG, Ezequiel (1999): Diagnóstico social. Madril, Instituto de CCSS Aplicadas.

COLECTIVO IOÉ (2003): Investigación Acción Participativa: Propuesta para un ejercicio activo de la ciudadanía.

LÓPEZ PELAEZ (ed.) (2010): Técnicas de diagnóstico, intervención y evaluación social. Madril, Universitat. UNED.

MARCHIONI, Marco (2007): Planificación social y organización de la comunidad alternativas avanzadas a la crisis (7ª ed.). Madril, Popular.

### 2. Gizarte proiektuen diseinua

ANDER-EGG, Ezequiel (2000): "Pautas y orientaciones para elaborar un diagnóstico comunitario". Capítulo 7. Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad. Buenos Aires, Lumen, 219-233.

BUSTOS, Cristina eta MICHAEL, Norma (1995): Guía para la gestión de proyectos. Bartzelona, Paidós.

PÉREZ SERRANO, Gloria (1994): Elaboración de proyectos sociales. Casos prácticos. Madril, Narcea.

### 3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua

BUSTELO, María: Criterios de evaluación: Evaluación de necesidades, diseño, resultados e impacto. Madrid, Iniciativas culturales.

CABRERA F. (2005): La evaluación participativa: concepto y fases de desarrollo. Madril, Cáritas.

CRUZ ROJA (2000): Manual de planificación de proyectos sociales, Madril.

FERNÁNDEZ-BALLESTEROS, Rocío (1996): Evaluación de programas. Una guía práctica en ámbitos sociales, educativos y de salud. Madrid, Síntesis Psicología.

INCYDE: La sistematización: cómo aprender de nuestras propias prácticas. Bilbao.

RED CONSULTORÍA SOCIAL (2010): Guía para la gestión con indicadores en acción social. Madrid, Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, 71-77.

SHAW, I. (2003): La evaluación cualitativa, Bartzelona, Paidós.

### **Aldizkariak**

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

ARABAKO GIZARTE ZERBITZUEN BEHATOKIA:

<http://www.arabakobehatokia.net/es/datos-estadisticos.php?t=2>

GIZARTE EKINTZARAKO GKE-en PLATAFORMA:

<http://www.plataformaong.org/>

CIMAS SAREA:

<http://www.redcimas.org/biblioteca/videoteca/>

INDICADORES SOCIALES:

<http://www.indicadoresociales.org/Menu74.aspx>

### **OHARRAK**